

## Emakume gazteek, gizon gazteekin alderatuta, lana lortzeko itxaropen handiagoa dute

**Baina lana duten emakumeen artean, lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arrisku handiagoa antzematen da, gizon landun gazteen artean baino**

Gazteen Euskal Behatokiak [Aurrera Begira 2016](#) txostena argitaratu berri du Euskadiko gazteen egungo egoeraren pertzepzioa eta epe laburreko etorkizunerako aurreikuspenak ezagutzeko. Bertan begi bistakoak dira emakume eta gizonen pertzepzioen arteko aldeak.

- ✓ Epe laburrean emakumeek lana lortzeko aurreikuspen hobekak dituzte: lana bilatzen ari diren emakume gazteen % 74k urtebeteko epean lana lortzeko dutela uste dute. Gizonen artean, ostera, % 64k.
- ✓ Dena den, lanean dabilen emakumeek lana galtzeko edo lan baldintzak okertzeko arrisku handiagoa antzematen dute. Izan ere, haien artean % 45ek uste du urtebeteko epean lana galdu edo lan baldintzak okertzeko direla, gizonen artean, aldiz % 38k.
- ✓ Emantzipazioari dagokionez, emakumeak gizonak baino egoera hobean daude. Urtebetean ezin izango direla emantzipatu nahi izan arren edo beren kontura bizi diren arren gogoz kontra gurasoen etxera itzuli beharko dutenen portzentajeak handiagoak dira gizon gazteen artean emakume gazteen artean baino.
- ✓ Azkenik, emakumeek gizonak baino konfiantza handiagoa dute gazteek oro har dituzten gaitasunetan, bai eta etorkizunarekiko konfiantza handiagoa dute.

 <b>AURRERA BEGIRA: GAZTEEN AURREIKUSPENEI BURUZKO ADIERAZLEAK</b>			
	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Egungo egoeraren balorazio indizea (0-100)	66	67	67
Norberaren poztasun indizea (0-100)	81	80	80
Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua (%)	45	38	42
Lana aurkitzea aurreikustea (%)	74	64	69
Prestakuntzari lotutako lana izatea aurreikustea (%)	67	69	68
Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea (%)	12	13	12
Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea (%)	42	50	46
Gazteen gaitasunekiko konfiantza indizea (0-100)	75	71	73
Etorkizunarekiko konfiantza indizea (0-100)	73	70	72

Nahi izanez gero [txostena osoa](#) eta emaitzen bilakaera kontsulta daitezke sexu, adin eta lurralde historikoka banatuta.